

«Lehen etapetatik oinarrietan lan egiten badugu, ikasteko zailtasun gehienak konponduko ditugu»

Amagoia Arte-
txek Unea di-
ziplinarteko
gunean, per-
tsona eta fa-
miliei zerbi-
tzu oso bat eskaintzeko xedea
duen Errenteriako zentroan,
optometrista gisa lan egiten
du. Jordi Catalan, berriz, neu-
rogarapenean espezializatuta-
ko medikua da, Bartzelonako
Haur Garapeneko Mediku Ins-
titutuko zuzendaria.

Irunen izan zen iaz katalana,
gora doazen haurren ikasteko
zailtasunen prebentzioaren
eta tratamenduaren inguruko
azken ekarpenak azaltzen.
Ikastaroaren erantzuna «zora-
garria» izan zen eta itzultzeko-
tan da, partaideak gehiagora-
ko gogoz gelditu baitziren.
Haien artean zen Artetxe ere.
Biak batu ditugu solasaldian.

**Arazoaren muinera joan
behar da; hala laburbildu dai-
teke zuen lan egiteko era.**

Jordi Catalan: Demagun haur
bati irakurtzea kostatzen zaio-
la. Normalki anitz leitzea go-
mendatzen zaio. Baina trebe-
tasun bisualetan arazoak
baditu, uko eginen dio horri
eta onerako baino txarrerako
izanen da. Horren ordez, ira-
kurketa oztopatzen dion fak-
torerik baden ikusten saiatu
behar dugu, gero, horiek zu-
zenduz, prozesua errazteko.

**Hezitzaile eta gurasooi zalan-
tza sortzen ahal zaigu umea
espezialista batengana noiz
eraman eta noiz itxaron be-
reizteko. Non dago marra?**

J. C: Itxarotea arrisku bat da.
Egia da badi-rela arazo batzuk
denborarekin konpontzen di-
renak. Baina ez litzateke hobe-
ki izanen prebentzio lan bat

egitea haurrak erakusten di-
tuen zailtasunen edo arreta
ematen diguten gauzen aitzin-
nean? Adibidez, letrak alde-
rantziz idaztea edo hitz totelka
hastea. Arazorik baden jakin
dezakeena espezialista da. Ira-
kasleak zail du, eboluzioaren
une batean ikusten baitu
umea. Haur Hezkuntzan eza-
gutzen du eta, tamalez, Lehen
Hezkuntzan bere arrastoa gal-
tzen du. LHko irakaslea da
zailtasunak sumatzen dituen
eta sarri ez du txikiaren histo-
riaren berri. Pediatrarengana
baino, espezialista batengana
joan behar da. Medikuntzan ez
gaituzte gai hauetan presta-
tzen. Ni interesatzen zitzaida-
lako formatu naiz.

**Zein arazoak eragiten dituzte
ikasteko arazoak?**

J. C: Urteetan zailtasunak di-
tuzten haurrak artatuz ikus-
menaren faktoreak daudela
deskubritu dut. Kasu horietan
optometristarengana joan
behar da. Faktore pedagogi-
koak ere badaude, eta pedago-
goarengana jo behar da. En-
tzumenak ere badu zerikusia.
Errate baterako, arreta man-
tentzeko zailtasunak dituzten
haur anitzek aitzinetik, gara-
penaren lehen hilabete eta ur-
teetatik, entzumen arazoak
izan dituzte: muki ugari, tin-
panoen drainatzeak egin
beharra... Ondorioz, entzuteko
eta hautemateko gaitasuna
urritua dago. Ikasgelan daude-
nean, ume batzuek ez dute ira-
kasleak dioena ulertzen. Larria
da hori. Horrek eragiten du
ematen ari den informazioari
arreta nahikoa ez jartzea eta
distrakitzea. Arreta defizitaren
nahasmendua duen begira-
tzen da orduan, eta badu, bai-
na aurretiko entzumen arazo

batek sortua. Horregatik da
hain garrantzitsua garapena-
ren oinarriari begiratzea.

Prebentzioaz ari gara, baina
ikusi dugu irakurtzea edo pro-
zesu matematikoetan arrazoi
logikoak ematea kostatzen
zaion 8-9 urteko haur baten
kasuan aitzineko oinarri guz-
tiak baloratu behar direla,
gaizki egituratutako zerbait
dagoen begiratu, lantzeko eta
ondotik trebetasun hori hobe-
tzeko, sintoma tratatu ordez
arazoaren sustraia bilatuz beti.

**Faktore emozionalek ere pi-
sua izanen dute.**

J. C: Handia. Nahiz eta gura-
soek eta hezitzaileek presiorik
ez egin, haurra konturatzen da
kideek erraz egiten dituzten
gauzak berari kosta egiten
zaizkiola.

Amagoia Artetxe: Haurraren
historia ezagutzea ezinbeste-
koa da. Entzungor egiten die-
gu gauza batzuei, normalak di-
rela pentsatuz; oinez berandu
hastea, adibidez. Ikertuz gero,
gauzak deskubritzen dira. Hori
beharrezkoa da gurasoek ere
prebentzio lan hau uler deza-
ten. Optometrista naiz eta,
haurrak garbi ikusten duen az-
tertzeaz gain, begien koordi-
nazioa ona den, ongi enfoka-
tzen duen, 3D ikuspegia duen,
mugimendu bisualak egokiak
diren... ikertzen dut. Funtzio
bisual ugari daude eta, horre-
taz aparte, garunak begiek
ematen dioten informazioare-
kin zer egiten duen begiratu
behar dugu, nola interpreta-
tzen duen. Hor sartzen da me-
moria, diskriminazio bisuala...
Hau ez da oso ezaguna, are gu-
txiago Jordik aipatu dituen en-
tzumen arazoak. Bisuala
gehiago mantentzen da den-

JORDI CATALAN BALAGUER ETA AMAGOIA ARTETXE MARITXALAR

NEUROGARAPENeko MEDIKUA ETA OPTOMETRISTA

Haurren ikasteko arazoak izugarri hazten
ari dira, eta horiei aitzin egiteko gakoa dira
prebentzioa eta esku hartze azkarra. Hala
diote aditu katalanak eta Errenteriako
Unea zentroko optometristak.



Argazkiak: Nahikari BELTRAN - Mendi URRUZUNO

boran eta espazioan, baina entzumenaren kasuan, informazioa galtzeak deskonektatzera eramaten zaitu. Entzumen arazoek eragin handia dute zure nortasuna eraikitzeko moduan ere. Guk parte hori lantzen dugu, entzumen eta ikusmen tresnak, baina tresna motorrak ere sartuz. Horiek guztiak beharko ditugu, besteak beste, irakurketarako eta idazketarako. Horiek dira askotan ikasketarako bidea.

Askotan, dislexiaren atzean, ikusmen edota entzumen arazoak egoten dira, eta arazo horiek konpontzen direnean dislexia egoerak ere hobera egiten du. Diagnostikoen gerran sartu ordez, oinarriak nola dauden begiratu behar da. Haurrak aski tresna ditu ikasgelako bere egunerokoari au-

JORDI CATALAN:

«Arreta defizita duten haur anitzek aitzinetik entzumen arazoak izan dituzte.

Hautemateko gaitasuna urritua dagoenez, batzuek ez dute irakasleak dioena ulertzen.

Larria da hori»

re egiteko? Izan ere, zailtasunak dituzten haurrek normalki ongi doazen adimen maila bera dute. Kontua da informazioa nola jasotzen eta prozesatzen duten, idazketaren abilezia motorra, motrizitate fina: ahoskatzea, begien mugimenduak, eskuen funtzioa... Diagnostiko horien guztien azpian zaindu beharreko zirrikitu asko dago, prebentziotik lan eginez.

Ficoban egin zenuten ikastarora irakasle ugari etorri zen.

A. A: Haur Hezkuntzakoak asko. Ikasgelan ikus ditzaketen arazoen aurrean begirada zorroztu zuten, eta baldintzak hobetzeko erremintak ere jaso zituzten. Oxala haurrak 9 edo 10 urterekin baino 5ekin ikusiko bagenu, hori litzateke

onena, dena askoz ere errazago moldatzen delako.

J. C: Bada irudi bat, garapenaren piramidea. Bertan ikusten da alderdi sentsorialek osatzen dituztela oinarriak: entzumena, ikusmena, ukimena, oreka... Hurrengo maila prozesu hauek martxan jartzea da. Gero konplexuagoak datoz: lateralitatea, informazioa barneratzeko gaitasuna... Prozesu bat da urtez urte garatzen doana. Argi ikusten da lehenetsunez heldu beharrekoak oinarriak direla. Horiek ongi badaude, bigarren mailara igaroko gara, gero hirugarrenera... Hala egingen dugu prebentzioan zein tratamenduan.

Tamalez, espezialista gutxi gara oinarrien parte lantzen dugunak. Normalki hizkuntza

gaitasunetara pasatzen dira zuzenean, edo espazioaren antolaketara, hirugarren mailan kokatuak biak. Espazioaren antolaketa ongi egiten ez denetan, haurra desorientatu egiten da, ez daki zein den eskuina eta ezkerra, matematika ariketetan ezkerretik hasten da eskuinetik beharrean, letrak buruz behera jartzen ditu... Horiek sintomak dira; sarri arazoa ikusmen edo entzumen ona ez izatea da. Ondorioz, informazio hori ez da ongi egituratzen. Baina sintomak tratatzen dira, fitxak betez, agian arazoa beherago dagoelarik, oinarrietan.

Zein eragin du honetan pantailak anitz erabiltzeak?

J. C: Pantailaren aitzinean jartzen garenean, erakarri egiten

gaitu. Ez dugu ahaleginik egin behar arreta mantentzeko. Jarraera pasiboa dugu. Ez da ekin-tza boluntario-kontziente bat; irakurketa bai, adibidez, hor arreta jartzeko ahalegin bat egin behar dugu. Aspertzean pantaila jartzen zaie haurrei eta denbora gehiegi egoten dira horien aurrean. Bestetik, lengoaia eta komunikazio falta dago. Pantailen bidez informazio ugari jasotzen dute, baina ez dago interakziorik. Entzumena momentuko gauza da, gero galdu egiten da. Baina elkarrizketa bat izaten badut eta truke bat egiten badut, informazioa gordetzen ahal dut. Liburu bat irakurtzen ari naiz orain, aholkatzen dizuet, "Sin relato". Bertan, psikiatra batek azaltzen du pantailak nola ari diren eragiten pertsonen mezua sortzeko prozesuetan. Ez dugu barnera begiratzeko lanik egiten, pantaila berehalakoa delako.

A. A: Hizkuntzaren lanketan zailtasunak badaude, pantailengatik edo beste faktore batzuegatik, arazoak izango ditugu edozein pentsamendu eta logika garatzeko, lengoaia-aren bitartekoa falta zaigulako. Ez dut pentsamendu hori altuan egiten, baina ezta nigan gogoetatzen ere. Oso ikusezina da, baina pazienteak etortzen zaizkigunean asko nabaritzen da.

J. C: Mugitzeko denbora ere falta dute. Naturalki mugitu behar dute, lasterka egin... Pantailan dauden denboran beste ekintzak egiteari uzten diote. Mahai-jokoetan jostatzeari, adibidez. Ikusmenaren eremua ere ixten da eta miopia areagotzen da. Estimuluak kanpotik datoz eta lantzea kostatzen zaigu.



Azukreak ere kalte egiten du...

J. C: Hiperaktibitatea sortzen du. Kendu beharreko lehen gauza azukreak dira, aktibatzailerik handiak direlako. Elikagai bat jaten baduzu, glukosa mantso barneratzen duzu, baina gozo bat jatean, zuzenean joaten da odol fluxura, eta horrek ekartzen du sistema neuronalaren muturreko aktibitatea. Kontrol gaitasun txikia dago hor, eta haurra desegonkortzen da. Gainera, haurra estimulatu ari gara lehen etapetan; autokontrola gutxiago lantzen dugu, ordea: oreka, in-

**AMAGOIA
ARTETXE:**

«Hizkuntzaren lanketan zailtasunak badaude, arazoak izango ditugu edozein pentsamendu eta logika garatzeko, lengoaiaren bitartekoa falta zaigulako»

hibizioa... Badira ekintza batzuk, dantza, arte martzialak..., horretan laguntzen dutenak, baina ohiko bizitzan azeleratuta doaz. Batzuetan haurrek kontzentratzeko zailtasunak dituzte garuna azkarregi doalako eta ez delako irakaslearen azalpenarekin sinkronizatzen.

Batzuetan nahasmenduak diagnostikatzen dira ez dauden lekuan?

J. C: Haurrak zailtasunak dituzte, diagnostiko bat eman behar da: hiperaktibitatea, dislexia, arreta defizita... Hor katu behar da, baina ez ditugu

oinarrizko eragileak kontuan hartzen. Nik argi ikusten dut gehiegi diagnostikatzen dela. Gaur egun ikasgeletako haurren herenari diagnostikatzen zaizkio nahasmendu hauek, batzuetan erdiari.

Noiz aholkatzen duzu medikazioa erabiltzea?

J. C: Beste zailtasunik egoteko aukera guztiak agortu ditugunean soilik. Egia da badirela haurrak arreta defizita dutenak, eta oinarriak aztertzen dituzu eta ez dago ezer desorekaturik. Baina %10-15 dira kasu horiek. Gehienek desorekaren bat azaltzen dute aurretik. Hortaz, ez dut gomendatzen medikazioa ematea oinarritzko beste zailtasun batzuei erreparatu gabe; nahiago dut sistema hori ordenatzen saiatu, eta gero, beste aukerarik ez bada, botika eman, DBHn edo Batxilergoan, ez goizago.

Oinarriak ongi egonik, nahasmendua duten haurrentzat zein bertze tratamendu daude botikez aparte?

J. C: Ahalik eta gehien ekin behar dira pantailak, eta ekintzak eta jolasak egin entzumen, ikusmen zein gorputzaren arreta entrenatzeko. Eraxazio metodoak eta meditazioa mesedegarriak izan daitezke ezinegon handia duen haurrak lasai eta bare egoten eta modu ordenatuan aktibatzen ikas dezan.

A. A: Erantsiko nuke garrantzitsua dela eskolarekin eskuz esku lan egitea eta aukerarik onenak bilatzea. Irakaslearen begirada aldatzen bada eta haurrak ikusten badu lagunduko diola, gauzak erraztuko dira. Egokitzapen eta trikimailu txikiak egin daitezke, ikasketarekin aurrera jarrai dezan.

Arreta defizitaren kasuan, irakaslearen ondoan egoteak laguntzen die. Besteetan, adi egon behar da ea agendan egin beharrekoak apuntatu dituzten, edo gauza txikiak errepikatu behar zaizkie lanean has daitezen. Irakurtzeko arazoak badituzte, hitz gakoak azpimarratzen ahal dizkiegu. Dislexiaren kasuan, badira testua irakurtzen duten kasko batzuk. Adinaren arabera, batzuetan teklatura pasatzen dira. Maiz atsedena behar ditzuzte. Estrategiak bilatzea da kontua, laguntza harreman bat sortzea ahalik eta denbora gehien egon daitezen informazioa entxufatuta.

J. C: Etxean ere lan egin daiteke. Errate baterako, mahai-jokoetan jolastuz arreta eta gaitasun ugari entrena daitezke. Txandaren zain egoten ikasten da, jokoa segitzen edota estrategia bat jarraitzen.

45 urtetik gora daramazu arlo honetan lanean, Jordi. Zein eboluzio ikusi duzu?

J. C: Gero eta interferentzia gehiago egoteak eta batez ere mugimendu eta koordinazio faltak izugarri eragiten du. Kaler atera eta korrika eta salto egiteko aukera duten haurrek oinarriak hobeki antolatu ditzakete. Zentzu honetan, okerrera egin dugu. Arreta gehiago ematen diegu, era berean.

Eta nola aldatu dira zailtasun hauen tratamenduak?

J. C: Oinarrien antolaketa arazoren bat badugu, eta lehen etapetatik horretan lan egiten badugu, kasuen %80an arrakasta lortuko dugu. Bertzetik, prebentzioa dago. Zaila da baloratzea, haur batek oinarriak lantzen baditu eta arazoak ekiditen baditu, zorionez, ez dela-

**AMAGOIA
ARTETXE:**

«Jendarte bezala profesional gehiago egon behar gara saretuta, eta batez ere prebentzio eta baliabide gehiago behar dira eskolan»

ko ikusten. Ikerketa bat egiten ari gara horri buruz, ikasgelan estimulazioa lantzen duten haurrak eta lantzen ez dutenak konparatuz. Egunean hamar minutuko programa bat da, prebentziorako. Azterketa honekin ari gara, ondorio zientifikoak ateratzeko. Baina 45 urteotako bidean lortutako emaitzez hagitz harro nago. Eboluzioa baikorra da zinez.

A. A: Arazo hauek goiz detektatzen badira, aldaketa ikaragarria da. Optometrista gisa, urteekin ohartzen ari naiz ikuspegi osoago bat behar dela, askotan arazo batek ez due-

lako soluzio bakarra. Esku-hartzea antolatu behar dugu, lehentasunezkoari helduz, baina ahalik eta modurik osoenean, oinarriak landuz eta estimulazio programa bat garatuz. Podologoak, logopedak, fisioterapeutak... gero eta gehiago egiten dute bat honekin. Sare profesionala izatea oso inportantea da, gero irakasleekin konpartitzeko.

Zein erronka gelditzen dira?

A. A: Jendarte bezala profesional gehiago egon behar gara saretuta, eta batez ere prebentzio eta baliabide gehiago behar dira eskolan.

Zein gomendio dituzue familia eta hezitzaileentzat?

J. C: Sintomak daudenean esku hartzea. Mugimendua da lehenbiziko gauza. Haurra bere inguruarekin erlazionatzen den modua ere bai. Inguruari sobera erreparatzen ez badio, lehen etapetan hori antzema-tea garrantzitsua da, badi-rela-ko inguruarekin konektatzeko terapiak. Marraztea gustatzen ez bazaio, agian zerbaitek oztopatzen du. Lehen sintoma edo susmo horien aurrean, kontsultatu, ez izan beldurrik. Prebentzioa gehiago landuko bagenu, anitzez errazagoa litzateke arazoak konpontzea.

